

IKASLEEN TXOKOA|44| ZENBAKIA

LANGILE IKASTOLA



Leoka, Hernaniko garbitzaileek
egunero bisitatzen zuten eraikina / III

OLAIA AUZMENDI, TOMAX ELORZA

Santa Krutzeko ermita,
Hernanin aurki
dezakegun zaharrena / II

UXUE ETA BITTOR



Atez
Atekoarekin
%80a
birziklatzen da / III

AHT
Urumeako
bailaran / IV

IRITZIA
Nolako
etorkizuna
nahi dugu? / IV

MAIDER HUIZI



Zergatik da futbola
mutilentzat bakarrik? / II

MALEN MARTINEZ ARRILLAGA

Egileen
argazkia / IV

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

LANGILE IKASTOLA

Santa Krutzeko ermita, Hernanin aurki dezakegun zaharrena

Santa Krutz Ermita, edo herrian esan ohi den bezala, Elizatxo, Portu auzoko bide zaharren aldamenean dago, udaletxearen eta Leokako iturriaren artean.

Zikuñagakoa desagertu zenetik, Hernanin aurki dezakegun zaharrena da, 1570ekoa, hain zuzen. Bi alditan izan da lekuz aldatua: 1706artean, udaletxearen atzealdean egon zen eta orduan metro batzuk mugitu zuten. Eta 1786an, metro batzuk beherago jarri zuten, gaur egun dagoen tokian.

Sarrera honen ondoren, gatozen, bada, eraikin honen deskribapenari ekitea.

XVIgarren mende amaierako ermita

Lehenengo begiradan, ikus dezakegu ermita txiki eta zahar bat dela, herri xume eta ohiko baten antzekoa. Urteak pasa ahala birgaitze ondorioak garbi ikus daitezke: garbi eta itxura polita duelako. Eraikuntza honek, eraikuntza klasiko baten itxura dauka, honez gain, ateburudun eraikuntza bat da, arkurik ez duelako.

XVIgarren mendearen amaieran eraiki zen ermita honek barroko estiloa irudi-

katzen du. Eskuin aldean, behealdean, apareju irregular bat aurki dezakegu, hau da, harri bloke irregularrek eginiko 1m inguruko blokea. Ezker aldean, burdinazko barroteek ate bat sortzen dute, ia teilaturaino iristen dena horrela barruko Ama Birjina erraz ikusi liteke. Lehen aipatutako harrizko aparejuaren goikaldean, atea osatzen duten barrote berdinak daude. Ermitaren erdialdean zutabe bat dago, hau, oso sinplea da: oina, gorpua eta kapela (ez dagokio inongo orden klasikorik) modura osatua dago.

Beste hiru aldeak horma irregular eta berdina dira

beraien artean, horma arruntak dira, hain zuzen. Lehen aipatutako zutabea eusten, habe bat dago ermitaren goikaldean eta honi jarraituz, horma zuri bat ikusi dezakegu, frontoia deritzona, honek triangelu bat osatzen du. Azkeneko honen gainean, bi isurialdeko teilatua dauka, teilaz osatutakoa. Honek, 50cm-ko irtengunea du fatxadarekiko, horrela eraikin hau euriatz hobeto babesten da.

Barruan, harearizko gurutze bat dago, Kristo, Ama Birjina eta San Joanen tailak dituen.

EGILEAK
Uxue eta Bittor
(DBH 4 A)

Zergatik da futbola mutilentzat bakarrik?

Aspalditik esan da futbola mutilentzako kirola zela, eta mutilek bakarrik parte hartu behar zutela. Neska batek jarduera honetan parte hartzea gaizki ikusia zegoen eta gaur egun oraindik ere, batzuek horrela pentsatzen jarraitzen dute, baina zergatik da futbola mutilentzat bakarrik? Hori da neure buruari egiten diodan galdera.

Edozein pertsona du futbollean jolasteko eskubidea, gainera neskak mutilak bezain onak dira kirol honetan. Esaterako, ikastola batzuetan, lehen hezkuntzan, ikastolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzte eta taldeetan mutilak eta neskak nahasturik jartzen dituzte; niri hori oso ongi iruditzen zait.

Egia da orain dela berrogei urte denek edo gehienek futbola mutilentzako besterik ez zela pentsatzen zutela, baina XXI. mendean horrela pentsa-

tzea oso matxista eta zentzugabekoa dela uste dut.

Komunikabideek mutilen futbolari bakarrik ematen diote garrantzia

Nire iritziz, horrela pentsatzen jarraitzearen erru gehiena komunikabideek dute, izan ere, mutilen futbolari bakarrik ematen diote garrantzia. Egunkarietan, adibidez, noizbehinka ateratzen dira emakumeen partiduen emaitzak, eta telebistan oso gutxitan hauen partiduak.

Eta hori guztiarengatik, nesken futbolari duen garrantzia eman behar diogula pentsatzen dut eta mutilentzako kirola besterik ez dela pentsatzeari utzi behar diogula ere.

EGILEAK

Malen Martinez Arrillaga
(DBH 2)



Emakumezkoen Ligan jokatzen duen Hernaniko jokalaria bat.

Leoka, Hernaniko garbitzaileek egunero bisitatzen zuten eraikina

Hementxe duzue urte askoan zehar Hernaniko latsariak (garbitzaileak) euren egunero errutinan bisitatzen zuten eraikina. Garbileku hau herriko alde zaharrean egon ez arren, bertatik oso gertu dago kokatua, udaletxetik pare bat minutura alegia. Garbileku honek jadanik ez du erabilerarik, izan ere, gaur egungo teknologia aurreratua pixkanaka lekua kentzen joan zaio, baina pozgarria da oraindik honelako eraikinak kontserbatzea.



Leoka garai berrietara egokitu dute.

Egitura arkitektonikoa

Lehen begiratuan nabaritzen denez, gobada-lekua hiru hormaz osatutako hutsune batean dago sartua eta zerutik begiratzuz gero, teilatuak "u" forma ematen dio. Garbilekua simetrikoa da, hau da, alde batetik edo bestetik begiratzuz gero berdina da. Eraikinaren atzealdean, zuhaitz bat ikus daiteke oso ederra lore horiz josia eta honen eraginez izan daiteke ikuztegiaren teilatuan antzematen diren liliak egotea. Latsariak bisitatzen zuten eraikinaren gailurra hiru isurialdeko

teilatu batez dago osatua, isurialde bakoitza bi metro zabal eta luze dira gutxi gora-behera eta honek hurrenez hurren, ipinitako teilak dauzka.

Hauek zaharkituta daudela dirudi, eraikina aspaldi eraiki zelako eta jada hainbat urte iraun dituelako zutik. Teilatuaren ezker eta eskuinaldean, harriz osatutako horma bat dago, hiru bat metrotakoa. Hau kolore askotariko harriz dago josia eta harrien tartetatik belar zahar batzuk ateratzen dira, zuhaitz batean goroldioa ateratzen den bezala, honek pixka bat utzita dagola ematen du. Beheraxeago joanez

gero, teilatuaren azpian estilo erromanikoko lau zutabe daude, altueraz pare bat metro izango ditu eta pertsona baten zabalerakoak dira. Kolore zuriz daude margotuak eta gailurrean karratu itxurako harri bat dute, teilatua ondo eusteko. Hauek lurrari daude itsatsiak eta inguruan arropa garbitzeko erabiltzen zen harraska bat dago. Bainera urez betea dago eta badirudi ura ez dela aspaldian garbitu, izan ere bertan ekosistema bat ere egon daiteke uretan dauden landare guztiekin. Honen kanpoaldean, aldapatxo bat dago metro erdikoa alegia eta latsariak

euren arropa igurtzeko erabiltzen zuten. Nahiz eta argazkian ez ikusi, ikuztegiari langile ikastolakoak hainbat berrikuntza ere egin zizkioten kolore zuriz margotu zuten eta hormen behealde baldosa itxurako harriz bete zuten. Gainera apal bat gehitu zuten hormaren erdialdean norbaitek, gainean zerbait bazeraman bertan uzteko.

Maialen Lujanbiok Leoka gogoan izan zuen finalean

Azkenik aipatu beharra dago, Maialen Lujanbio bertsolari hernaniar famatuak, bere finaleko esker-agur gisa, bertara bidaiak egiten zituzten latsariak goraiatu zituela: "Gogoratzen naiz lengo amonen zapi gaineko gobaraz, gogoratzen naiz lengo amonaz, gaurko amaz ta alabaz"

Maialen Lujanbiok argi uzten du garai batean Leoka arropa garbitzeko erabiltzen zela, baina gaur egun honen erabilera asko aldatu da. Antzina, ikuztegia emakumeen lan leku, topaleku, eta kontu toki izan zen; egun, 4.

urtez Jabetza Eskolaren eskutik, berriro ere emakumei eman zaie protagonismoa, haientzat berreskuratzuz aisi eta kultur adierazgune gisa.

Hernani eta inguruko emakume artisten lanak ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen digute urteroko ekitaldietan. Adibidez, 2007an *Ornitorrinkus* izeneko emanaldia izan zen, musika garaikidea eta bertsoak elkarrekin osaturiko hotsen eta ahotsen ikuskizuna, Judith Monterok eta Maialen Lujanbio osatua. Baita beste hainbat emanaldi ere: Ainara Ortega Quartet eta Iñaki Salvadorren arteko kantu-piano entzunaldia, Tania Arriagaren "La Espinita" laburmetraia, Ainara dantza eskola eta Ania Ibargurenaren kontzertua.

Ikusten dugunez, garaietara egokiturik, aurrera jarraitzen du Leokak uda ederreko giroan. Urte askotarako!!

EGILEAK

Olaia Auzmendi, Tomax Elorza (DBH 4)

Atez Atekoarekin %80a birziklatzen da

Begi bistakoa zen, kanpaina desberdinak egin arren, Gipuzkoako zabortegeiak lepo betetzen ari ginela. San San Markosekoa 2009an itxi zen, baina hala ere beste bi zabortege ere bazeuden eta horrela, zabortege horien bizitza iraupena laburtzen ari zen. Hau ez gertatzeko, atez ateko bilketa egitea oso egokia iruditzen zait.

Alde batetik, lehen sor-

tzen zen zaborraren %21,5a bakarrik birziklatzen zen; orain, ordea, Atez Ateko bilketarekin, %80a. Usurbilen adibidez, 2008an ez zen materia organikoaren grammo bakarra ere birziklatu; 2009an, berriz, bilketa horrekin, 209.348kg materia organiko birziklatzea lortu zuten.

Onartzekoa da, lehen birziklatzen ez zuen jendea

orain kexatzea eta kosta egiten zaiela esatea. Baina konurtatu behar dugu, etorkizunerako osasungarriagoa izango dela eta horren aurrean saiakera bat egin behar dugula. Azken finean, hondakinak gordetzea eta dagokion egunean etxeko atarian uztea besterik ez da.

Gainera, urtean 125kg materia organiko bilduko da pertsonako. Horri esker, tra-

tamenduan sortzen diren negutegi efektua eragiten duten gasak saihestuko dira.

Konpostajea etxean egiteko aukera

Bestalde, konpostajea etxean bertan egiteko aukera ere badago. Horrela, hondakin gutxiago tratatzen da zerbitzu publikoen bidez, norberak bere etxean birziklatzen duelako bere materia organikoa.

Bukatzeke, oso latza deritzot, Katalunian, zaborra ateratzeko egunak ez errespetatzeagatik, atez ateko bilketa bertan behera uzteari.

Horrenbestez, atez atekoaren helburua hondaki-



nak bereizita jasotzeko ekimenak bultzatzea da, eta horrela, birziklatzen ez diren hondakinen kopurua ahalik eta gehien gutxitzea.

AHT Urumeako bailaran

AHT-a, hau da, Abiadura Handiko Trena momentu honetan pil-pilean dagoen gai bat da. Izan ere, tren honek izugarrizko txikizio eta suntsiketak eragingo ditu Euskal Herriko hainbat, mendi, ibai, herri eta base-rietan.

Kostu haundiko obra

Alde batetik, izugarrizko diru kopuruak behar dira AHT eraikitzeko. 145.000.000 euroko oinarritzko aurrekontua dago eraikuntza egiteko eta horrez gain, obra zuzendaritza laguntza, ibilbidean dauden etxeen azterketa... Izan ere, Andoain-Hernani zatiak 80.000.000euroko kostu ekonomikoa izango du,

Urnieta-Hernanik 145.000.000 eurokoa, Hernani-Astigarragak 204.000.000 eurokoa eta Astigarraga-Donostiak 250.000.000 eurokoa beste batzuen artean.

Kalte haundia, Urumea ibaian

Bestale, Urumea ibaia erabat hondatuko luke. Hain zuzen, ibilbide naturala eta ibaier-tzak suntsitu, meandroak kendu eta Martutenetik Hernaniraino ubide bat eraiki nahi dute, Astigarragako erriberetan geltoki erraldoi bat egiteko. Eusko Jaurlaritzak berak onartzen duenez Urumea ibaian eragiten da AHT-ren proiektu osoko kalterik handiena eta garrantzitsuenak. Horrek,

Martutene eta Loiolako auzetan uholde arriskua areagotu dezake.

Subestazio elektrikoa, Hernanin

Jarraitzeko, AHT-k ibiltzeko argindar handia beharko duenez, 10 hektareako subestazio elektrikoa eraiki nahi dute Hernaniko Tolarietan. Bertan 400.000 v-ko argindarra kudeatzeko asmoa dute. Proiektu honek ere izugarrizko kalteak eragingo lituzke. Esaterako, paisaiaren hondatzea, eremu elektromagnetikoak herritarren osasunari eragindako kaltea, zarata handia etekinik gabe, basoan sute arriskua handiagotzea, hegazti asko elektrokutatuta hiltzea, Tentsio Altuko linearen ingu-

ruan bejetazioa galtzea, kableen inguruan zarata handia eta interferentzia elektromagnetikoak izatea, airearen ionizazioa...

Euskal Herriko gune batzuk desagertzea ekarriko du

Azkenik, AHTk, akuifero, erreka eta mendien hondamendia, kalte sozio-ekonomikoak, eta nekazaritzaren eta Euskal Herriko gune batzuen desagertzea eragingo luke.

Hau guztia dela eta, natura eta osasuna gaur egun oso kontutan hartu beharreko gauzak dira, eta ez gara kon-turatzen AHTren proiektua aurrera eramanda, dauzka-gun altxor guztiak galduko ditugula.

IRITZIA

Nolako etorkizuna nahi dugu?

KLIMA aldaketa benetan gertatzen ari da, nahiz eta jende batek ezetz esan. Izan ere, datuak hor daude: horrela jarraituz gero, mende honetan tenperatura batz bestea 1,5 eta 4,5°C artean igo daiteke, eta horren ondorioz, glaziarrek eta kasko polarrak urtu eta itsasoak berotu egingo dira; ozono geruza geroz eta finagoa da... Nik uste garaia dela horretan pentsatzen jarri eta neurriak hartzeko.

Hasteko, birziklapena aipatuko dut. Nire ustez birziklatzea guztiz beharrezkoa da, baina lehenago kontsumoa gutxitu eta berrerabili behar dugu. Honi esker, hondakinak eta kutsadura gutxitu eta baliabide naturalak agortzea eragozten da. Gainera, birziklatuko bage-nu ez zen erraustegi eta horrelakoen beharrik izango.

Energia berriztagarriak ere garrantzitsuak dira, nire ustez. Energia berriztagarriak abantaila nagusi bat dute: berriztagarriak dira, eta beraz, ez dute baliabide naturalik agortzen. Gainera, gutxiago kutsatzen dute. Uste dut energia berriztagarriak bultzatu beharko lirakeela, dauzkaten abantailak ikusita.

Horrez gain, basoen deforestazioa ere badago. Hau, nire ustez, ez litzateke beharrezkoa izango mundu guztiak birziklatuko bagenu. Gainera, zuhaitzak mozterakoan bertako habitata suntsitzen da, animalia asko hilaz, eta CO2 gas asko sortzen du prozesu honek. Nire iritziz badaude beste modu batzuk egurra lortzeko, adibidez, zuhaitzak landatzea gero moztu ahal izateko.

Hau guztia esan ondoren, uste dut klima aldaketari buruz hausnartu beharko genukeela eta bizitza jasangarriago bat eraman. Bakoitzak ikus dezala nolako etorkizuna nahi duen.

EGILEAK

Maidier Huizi

Ikasleen Txokoa - 44 zk.

LANGILE IKASTETXEA

EGILEAK:

